

**EBAZPENA, Administrazio Publikoaren Euskal Institutuko zuzendariarena, 630/2025 prozedura arruntari buruzko administrazio-espeditentea bidaltzeko xedatzen duena eta interesdun izan daitezkeenei epatzen dituen.**

Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazio-Auzietako Salaren 2. Atalak 630/2025 zenbakiko prozedura arruntan administrazio-espeditentea bidaltzeko eskatu du. Espediente hori pertsona batek Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburuaren 2025eko abuztuaren 12ko Aginduaren aurka jarritako administrazioarekiko auzi-errekurtsoari buruzkoa da. Agindu horren bidez, ezetsi egin zen Administrazio Publikoaren Euskal Institutuko (IVAP) zuzendariaren 2025eko apirilaren 10eko Ebazpenaren aurka jarritako gora jotzeko errekurtsoa. Ebazpen horren bidez, zehaztu zen zenbat funtzionario-plaza gehigarri esleitu diren, nola banatu diren eta zer esleipen-prozedura erabiliko den, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2022ko maiatzaren 18ko Aginduaren babesean deitutako enplegua finkatzeko prozesuen barruan.

Zehazki, Fakultatiboen Goi-mailako kidegoko Hizkuntza Normalizazioko Eskalari dagokiena.

Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa Arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 49.1 artikulua xedatzen duenarekin bat, hau

**EBAZTEN DUT:**

**RESOLUCIÓN, de la directora del Instituto Vasco de Administración Pública, por la que se dispone la remisión del expediente administrativo relativo al Procedimiento Ordinario número 630/2025 y se emplaza a las posibles personas interesadas.**

Por la Sección 2ª de la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco ha sido requerida la remisión del expediente administrativo en el procedimiento ordinario número 630/2025, relativo al recurso contencioso-administrativo interpuesto por una persona contra la Orden de 12 de agosto de 2025 de la Consejera de Gobernanza, Administración Digital y Autogobierno, desestimatoria del Recurso de Alzada interpuesto contra la Resolución del 10 de abril de 2025, de la Directora del Instituto Vasco de Administración Pública (IVAP), por la que se concreta el número y distribución de las plazas de personal funcionario que serán objeto de adjudicaciones adicionales y el procedimiento para su adjudicación en los procesos de consolidación que fueron convocados al amparo de la Orden de 18 de mayo de 2022 de la Consejera de Gobernanza y Autogobierno.

Concretamente, las correspondientes a la Escala de Normalización Lingüística del Cuerpo Superior Facultativo.

De conformidad con lo preceptuado en el artículo 49.1 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, Reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa,

**RESUELVO:**



**Lehenengoa.**– 630/2025 Prozedura arruntean Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazio-Auzietako Salaren 2. Atalak eskatutako administrazio-espedientea bidaltzea.

**Bigarrena.**– Aipatutako espedientean interesdun izan daitezkeenei dei egitea, bederatzi eguneko epean Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazio-Auzietako Salaren 2. Atalean ager daitezen eta 630/2025 zenbakiko prozedura arruntean alderdi gisa pertsonatu daitezen.

**Hirugarrena.**– Ebazpen hau interesdunei jakinaraztea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluan xedatutakoarekin bat.

**Primero.**– Remitir el expediente administrativo solicitado por la Sección 2ª de la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el procedimiento ordinario número 630/2025.

**Segundo.**– Emplazar a las posibles personas interesadas en el referido expediente para que puedan comparecer en el plazo de nueve días en la Sección 2ª de la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco y personarse como parte en el en el procedimiento ordinario número 630/2025.

**Tercero.**– Notificar esta Resolución a las personas interesadas, según lo previsto en el artículo 40 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Vitoria-Gasteiz, sinadura elektronikoaren datan.

**Leire Corrales Goti**

Administrazio Publikoaren Euskal Institutuko zuzendaria  
Directora del Instituto Vasco de Administración Pública